

IKASGAIAREN IZENA: MUSIKA ETA DANTZAREN HISTORIA

DEPARTAMENTUA	MINTEGIA: MUSIKA
ZERTARAKO	Musikaren eta dantzaren historiako estilo, genero eta garai nagusien ezaugarriak sortzaile eta obra nagusien bitartez ulertzea, norberaren prestakuntza estetiko eta artearen nahiz kulturaren gaineko ezaguera zabaltzeko, pentsamendu estetiko autonomo, ireki eta malgua eraikitzeko, eta norberaren kultura- eta aisia-jarduerak aberasteko.
ZER IKASIKO DUZU	Musikaren eta dantzaren historiako ikuspuntu orokorra landuko da, antzinako kulturetatik hasi eta gaur arte. Ikasturte honetan ere gitarra landuko dugu eta ahal dugun neurrian estilo desberdinetako musika lantzeko erabiliko dugu.
METODOLOGIA	Taldeko nahiz bakarkako lanen bitartez historian zehar musikak eta dantzak izan dituen aldaketak aztertzeaz gain estilo desberdinetako musika entzun eta interpretatuko dugu, batzutan kantua eta besteetan musika-tresnen interpretazioaren bitartez.
EBALUAZIOA	Ebaluaziorako ikasgelan lantzen denaren eguneroko behaketa hartuko da kontutan; bai kantua eta musika-tresnen interpretazioari dagokionez, eta baita ikasleek egindako lan eta proiektuen aurkezpenei buruzkoa ere. Lanen bitartez landuko diren garaiaz gain, estiloen entzumen frogatxo ere egingo dugu.
OHARRAK	